

Teresa Monge Martínez \*

## 18 urte gehiago bizi izan naiz

**D**uela hamazortzi urte, abenduaren 14an, berriro jaio nintzen, seme gaztearen giltzurrunak ematea erabaki zuen eta ezagutzen ez dudana familia bati esker. Uribe Kosta inguruan zebilen furgoneta baten kargak buruan jota hil zen gaztea. Bere giltzurrunetako bat niri “tokatu” zitzaidan... Gazte horren senideei esker, beste hamazortzi urtez bizi izan naiz. Beti izan dut familia hori ezagutzeko eta nire esker-ona azaltzeko gogoia, dialisiarekin bost urte luze eta latz eman ondoren, ihesi zihoakidan bizitza eman baitzidaten. Organo hura garaiz iritsi izan ez balitz, askoz lehenago galduko nukeen bizia. Berriki hil naiz, pasa den azaroaren 30ean, eta amorrazio gehien eragin didana nire gorputzean bizirik zegoen giltzurrun hori –nire heriotzak ez du zuzenean zerikusirik izan egoera ezin hobean zegoen giltzurrunarekin– beste inork, nik bezala, jaioberritzeko aprobeixatu ez izana da.

Ezagun ditut organo emaileen anonimotasunari buruzko protokoloak. Hala ere, gaztearen senideei hamazortzi urte gehiago eman zizkidan giltzurrunagatik eskerrak eman nahiko nizkieke. Bizirik nintzela ez nuen lortu, orain “beste dimentsio” batean nago, eta, mezu hau iristen bazaie nire bikotekidearekin (Juan Mari Arregi) harremanetan jartzea nahi nuke; helbidea aldizkari honetan lor dezakezue. Nik biziraun nezan organo haiek urgentziaz eraman zituzten erizainei, medikuei eta anbulantzia gidariei ere eskerrak eman nahi dizkiet, transplanteak koordinatzen dituen talde osoari ere bai.

Halaber, transplante ebakuntzan parte hartu zuten mediku eta erizainei, eta azken hamazortzi urteotan aldi behingo berrikusteen bidez lagundu didatenei eskerrak eman nahi dizkiet. Bereziki, Basurtuko Ospitaleko Cabrera eta Vigón doktoreei, transplantea baino lehen dialisi urte gogorretan lagundu zidatelako. Transplantea egin zidan Amenabar doktoreari, eta transplantearen ondorengo hamazortzi urteetan, Gurutzetako ospitalean berrikusteak egin zizkidaten Sofia,



Lampreabe, Muñiz eta gainerako doktoreei. Ez ditut ahaztu hainbeste ospitale-ratzeetan lagundu nauten Gurutzetako eta Basurtuko Larrialdietako langileak. Hau da nire azken mezu: bizitza maite duenak jakin dezala, egunen batean hil arren, bizitzak beste pertsona batean jarraipena izan dezakeela, organoak eman baditu.

Gaztearen senideei hamazortzi urte gehiago eman zizkidan giltzurrunagatik eskerrak eman nahiko nizkieke.

Bizirik nintzela ez nuen lortu, orain ‘beste dimentsio’

batean nago, eta, mezu hau iristen bazaie nire bikotekidearekin (Juan Mari Arregi) harremanetan

jartzea nahi nuke; helbidea aldizkari

honetan lor dezakezue

Giltzurrunetakoa ez da bizitzan izan dudana gaitz bakarra, eta horregatik, duela hogeitabi urte, artean dialisia hartzen nuela, Basurtuko Ospitalean bihotz ebakuntza larri eta zaila egin zidaten mediku eta erizainei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Gogoan ditut, bereziki, ebakuntza egin zuen Zuazo doktorea eta azkeneraino jarraipena egin zidan Arrillaga doktorea. Azkenik, urte hauetan lagundu dida-zuen eta nire agurrean parte hartu duzen senide eta lagunei eskerrak eman nahi dizkizuet. Bereziki Maribe, Txaro eta Pedro aipatu nahi nituzke. Maite zaituztet. Ez izan triste, egun zoriontsu baten ondoren heldu baitziztaidan ordua.

Beste dimentsiotik: agur eta beti arte. ■



\* Teresa Monge Martínez Argiako kazetari Juan Mari Arregiren (Daniel Udalaiz) bikotekide zendu berria da.